

BESTELAKO XEDAPENAK

LEHENDAKARITZA

2983

12/2022 DEKRETUA, ekainaren 23koa, lehendakariarena, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko kide bat aldatzeko dena.

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari buruzko maiatzaren 17ko 8/2012 Legearen 5. artikulua lehendakariari esleitu dio erakunde, antolakunde, entitate edo elkarteek Kontseilurako hautatzen dituzten ordezkariak izendatzeko ahalmena, eta lege-testu bereko 7. artikulua ezartzen du Kontseilua osatzen duten pertsonen agintaldia lau urtekoa izango dela, horiek berriz hautatzeko aukera alde batera utzi gabe.

Legeak agintzen du, baita ere, batzordean ordezkariak duten erakunde, antolakunde, entitate edo elkarteek titular edo ordezkari izendatu dituzten pertsonak aldatzeko aukera dutela. Izendatu berria kargu horretan arituko da ordezkariak duten pertsonak Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean bete beharreko lau urteko epea igaro arte.

Lege horren 5. artikuluan xedatutakoaren arabera, eta 7. artikuluekin lotuta, Confebask enpresa-konfederazioak lehendakariaren maiatzaren 9ko 16/2019 Dekretuaren bidez izendatutako ordezkari bat ordeztu du, eta beste bat izendatzea erabaki du.

Horren ondorioz, hauxe

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Juan Lasa Ibarreche jauna Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko ordezkari izendatzea, Confebask enpresa-konfederazioak hautatuta, Julián Ruiz Gutiérrez jaunaren ordezkari.

2. artikulua.– Dekretu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteizen, 2022ko ekainaren 23an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.